## gaurkoan

Mikel Dorronsoro (*)

# Europara begira

Hauteskunde europearren aurrean aurkitzen garen egun hauetan zaila da gaia alde batera uztea. Halere ez dut hauteskunde hauei buruz hitzegiteko asmorik, horretarako beste batzu ni baino trebeago mintzatuko direlako datozen asteetan, seguraski guztiok aspertzeraino, besteon ixiltasuna eskertzekoa gertatuko delarik. Bainan badira gauza pare bat, egun hauetan guztioen ahotan ibiliko direnak, nire uste apalean lerrotxo batzu merezi dituztenak. Europari buruz hitzegiten denean mundu guztiak bere aurreritziak gehitzen bait dizkio Europari, Europa etorkizuna modura ulertu beharrean.

Batzuren eritziz Europa nazionalismoaren ikuspegi mugatu eta zaharkitua gainditzeko barruti egokia. Egia da hemeretzigarren mendean gorpuztutako nazionalismoaren ikuspegia mugatua eta zaharkitua dela, akzidentalak diren elementuak funtsezko egin ondoren politika ororen ardatz bihurtu nahi dituen neurrian; bainan ez dut uste Europear barrutiak, besterik gabe, ikuspegi hori gainditurik duenik. Eta nire eszeptizismoaren arrazoia oso sinplea da: Europear barrutia nazio berri baten modura ulertzen delako eta ondorioz ikuspegi nazionalistaren muga eta zaharkikunde guztien barne bete betean aurkitzen delako ikuspegi hau.

Eurozentrismo berri hau oso arriskutsua delakoan nago, batez ere ezker deiturako indar politikoen ahotik entzuten denean bere defentsa, pentsamendu aurrerakoi ororen printzipio nagusienetariko bat hankaz goratzen bait da: elkartasunaren printzipioa; norberaren zilborra kontenplatzetik ezer zuzenik ezin daiteke itxaron, eta guztiok ezagutzen ditugu joan zen mendean eta bizi dugun honetan harrokeria nazionalak ekarri dituen ondorio «zoragarriak» kolonialismoa, inguruko lurraldeen okupazioa, arrazismoa, norberaren interesen mesederako ahal den guztia menperatzea, eta antzeko abar luze bat. Guzti hori frantzes, ingeles, espainol, euskaldun edo europear modura egina izateak ez du arazoaren funtsa aldatzen. Horregatik pentsatzen dut Europear nazionalismo bat osatu nahi izatea bere zuztarrak aintzinean dituen eurozentrismoa kontutan harturik ez dela hemeretzigarren mendean gorpuztutako nazionalismoa baino liluragarriagoa.

Ikuspegi aurrerakoi batetik pertsonen askatasuna eta autonomia oinarritzat dituen eraikuntza bat da pena merezi duen gauza bakarra, horrela bakarrik lor bait daiteke aurrean ipintzem den guztia zapaltzen oinarritutako gizarte baten ordez elkartasunean oinarrituko den bat zutikatzea. Bestela, nazionalismo txikiak nazionalismoa handi baten izenean kritikatu besterik ez genuke egingo, eta ez dut uste aurrera begira daukagun desapioa tamaino batetara muga daitekeenik.

Baina bada beste tekela gai bat egun hauetan lehengoarekin batera asko aipatuko dena inolako zalantzarik gabe. Batzu zein besteak Europa nola eraiki behar den eztabaidatuko dute: estatuetan oinarriturik edo herrietan oinarriturik, estatuen Europa edo herrien Europa. Bakoitzak nahi duena sines dezake bainan hemen hitz potzolo gehiegi esaten delakoan nago, eztabaida horrek zentzu gehiegirik ez duelakoan bait nago.

Estatuen Europa eraikitzea nahiko zaila da, besteak beste hori nahiko txapuzeroa litzatekeelako, eta horixe da, hain zuzen, egun gertatzen dena. Etorkizunari begira ordea argi dago orain arteko estatismo zorrotzean oinarriturik ezinezkoa dela Europa eraikitzerik. Estatu bakoitzak bere interesak defendatzen dituen neurri berberean, Europaren eraikuntza ahultzen du, amankomuntasuna zailtzen duelako, eta hau behin eta berriro salatua izan da. Bainan herrien Europak ere kalte berbera lekarkiguke, herriak estatu modura hartzen bait dira, eta ondorioz estatismo bat beste batekin ordezkatuko genuke, eta hasierako egoera berdinean aurkituko ginateke.

Korapilo honek duen irteera bakarra egingo estatuen eraldaketa da, demokrazia, zentzurik sakonenean, hedatzean eta estatismoaren sarea ahultzean bait datzake bide posible bat, eta ezker ikuspegi batetik interesgarriena dela esango nuke. Eta ez da zerbati esateagatik esandako kontua, orain artean ez bait da bestelakorik somatu: estatuak eraldatzean (pertsonen askatasuna eta autonomia gehituz) automatikoki ez da gaindituta geldituko egungo eragozpenen multzoa, bainan gutxienez aukera sortuko da libreki eta elkartasunean Europa eraikitzeko, eta horretan pentsatu beharko genuke.

Beste gauza askotaz ete hitzegin daiteke, bainan gaurkoan aipatutakoak hautatu ditut Europaren inguruan asko hitzegiten den neurri berean itxurazko brillantekeriak nagusitasun gehiegi dutela frogatzeko adibide gisan. Eta gauzarik kuriosoena zera da, mundu guztia Europaz hainbeste kezkatua dirudien une hauetan hain diskurtso pobreak plazaratzea, eta mitolojiarik xelebreenak ez bat eta ez bestea bidezkotzat ematea.

Hemen ere zergatiak bilatze ez da hain zaila. Zenbateraino interesatzen da Europa? Zertarako? Zein helburukin? Badirudi batzuk eta besteak beraien joeren zuzentasuna frogatzeko Europa aitzaki moduan erabili nahi dutela; horrela Europari buruzko diskurtsoa ez litzateke Europa eraikitzeko osatzen ari den egitasmoa bat (ez eta gutxiagorik ere), bakoitzaren joko politikoaren aitzakia baizik. Hauteskunde garaian gaudenez da da harritzekoa, dinamika politikoak horretara bultzatzen bait du, bainan bestelako kontuak ez ahaztea komenigarria litzateke.

Helburu nagusia elkartasusnean eta berdintasunean pertsona libre eta autonomoek eraikitako gizarte bat gauzatzea dela uste dut, ezker ikuspegi batetik behinik behin, eta Europa edo beste edozein barruti beste angelu batzutatik enfokatzea eztabaidagarria iruditzen zait, azaleko faktoreei funtsezkotasuna atxekitzen bait zaie eta gero badakigu zer etortzen den: horrorea, disparatea edo bufonada.

Europa ideia interesgarri bat den bezalaxe mitorik arriskutsuena izan daiteke, inon ez bait dago idatzita, Europaren deiturak berak, berez, majikoki deabru guztiak aldenarazten dituenik. Hitz politak esatea ondo dago, belarriei ere gozamena ematea ez bait da gaizki etortzen noizbehinka, bainan entzundakoari buelta para bat ematea ere bai, askotan itxuraz ederra dena gero ez bait da hainbesterainokoa izaten.

*Irakaslea*

## zelatan

### Ixo!

Sendo dirau paktoak.

Alde batetik, gauza batzu egiten dira Iruñean eta Gasteizen, beti Madrileko nahien arauera. Eta beste alde batetik, ikurriñaz jazten dira (horra hor paktoaren kakoa: mozorroketa); eta euskaldunen artean benetan itsusi eta ireskaitz gertatzen direnak, izkutatu egiten zaizkigu.

Eta isilkerien izari hau hertsiki errespetatzen delako, lanak izaten ditugu guk (pakto horietan sarrerarik ez dugunok) azpikeria autonomiko eta amejoratu horietan egosten ari denaz jabetzeko.

Hitz erdika jakin dugu, adibidez, Hezkuntza Sailean sekulako garbiketa egon dela azkeneko urte pare honetan; eta ez dela ia euskaldun alerik batere salbatu. Recaldek eta Huertasek departamenduen espainiarkuntza osoa inposatu bide dute.

Hitz erdika jakin dugu, era berean, Osakidetza Sailean, fenomeno bera gertatu dela: bulegoak, lanarigoak eta artezkaritzak oro, murciarrez, terueldarrez eta zamorarrez bete dira mukurru.

Eta orain, zeharbidez, azkeneko atentatuaren ondorioz, Ertzantzan ere nork agintzen duen oroitarazi zaigu. Bagenekien, egia esan: ertzainen buruzagitza espainiar batzuren eskuetan dago. Baina maila apalagotan ere, fenomeno bera, orain agertu denez: ''artificiero'' delakoen buruzagitzan, ''Policía Nacional'' delakoan kontratatutako abertzale finak jarri dituzte.

Hortaz: ixo!!

Badakizue paktozaleen agindua: arazo nagusia, bakarra: ''terrorismoa''.

Jakina.

TXILLARDEGI

## hemeroteca

### *Los descamisados de Guerra*

*(«Diario 16», 27-V-89)*

Los descamisados de Alfonso Guerra llevan camisa de seda. El vicepresidente del Gobierno abrió en Madrid la campaña de su partido, rodeado de los censurados Barranco y Leguina, descalificando, como siempre, a sus adversarios políticos con insultos y bromas muy preparadas. No es seguro que con esta técnica favorezca las expectativas electorales de la lista socialista, pero parece claro que perjudica y trivializa el sentido de estas elecciones. No es imaginable que ningún vicepresidente de Gobierno europeo utilice ese lenguaje ni caiga en tal aldeanismo.

El público llegó al polideportivo de San Blas en autobuses y con bocadillo, como en los viejos tiempos. Los insultos de Guerra se centraron en Marcelino Oreja y, sobre todo, en el futuro alcalde de Madrid, Agustín Rodríguez Sahagún, a quien, para hacer gracia, llamó «regadera». Esta obsesión de Guerra con el destacado político centrista indica que el pacto municipal de centro-derecha ha desarmado todos los esquemas socialistas.

La alocución de Guerra más comentada y más reproducida en las emisoras de radio dice así: «Estos tíos, perdón, estos señores, lo que no perdonan es que el alcalde de Madrid sea hijo de un campesino de Jaén que se vino de albañil a Madrid. Es que les quita el sueño, no pueden soportar que nosotros, unos descamisados, gobernemos el Ayuntamiento».

Todo esto dicho en un tono agresivo y exaltado, casi histérico. ¡Vaya perla para iniciar oficialmente la campaña del Parlamento Europeo! Convendría que nuestro vicepresidente viajara más por Europa, aunque fuera en el Mystére.

Este no es el estilo propio del vicepresidente de un Gobierno constitucional. Ni siquiera del vicesecretario general del principal partido político. Es una muestra de lo que no cabe en una campaña electoral europea. Recuerda demasiado al populismo peronista, hasta en lo de los «descamisados». Es un hecho que los «descamisados» de verdad ya no están en el PSOE o, al menos, no están conformes con la política del actual Gobierno socialista. Y si no, que se lo pregunten a Nicolás Redondo.

Pero, además, no es el vicepresidente Guerra el más indicado para excitar los sentimientos de los pobres, porque todo el mundo conoce ya su vida y milagros. Esta salida de tono, que no contribuye ciertamente a la pedagogía democrática basada en el respeto a los demás, sólo se explica si obedece a una maniobra astuta para concentrar la atención en el «pararrayos» de Guerra y no fijarse en los verdaderos problemas que están sobre la mesa; es decir, como una maniobar de distracción.

Parece que ha llegado la hora de respetar a todas las fuerzas políticas democráticas, sean de derecha, de izquierda o de centro, y, por supuesto, a las personas. Aquí nadie tiene el monopolio de la ética y mucho menos la patente de demócrata.

Hay, además, una especie de fraude habilidoso en este arranque de campaña socialista. Los estrategas de la sede de Ferraz, encabezados por el propio Guerra, han querido cargar las tintas en la franja progresista del partido, cada vez más crítica con la política dominante. Ni Morán, ni Leguina, ni Barranco, que se han prestado a este juego de equívocos, representan hoy la línea gubernamental. Se trata, evidentemente, de un intento desesperado de amarrar los votos de la UGT o de descalificar a Nicolás Redondo. Y, para confirmar esta estrategia, ahora el PSOE se presenta como el partido de los descamisados. ¡Demasiado para el cuerpo!

El vicepresidente Alfonso Guerra ha marcado el tono trivial de la campaña europea. Ya puede callarse Morán con sus sesudos análisis de los problemas de la Comunidad. Aquí lo que interesa es agitar la plaza de la Villa.




*''Diario 16''*